

{ gertuko
planak }



Bizkaia / Karrantza

*Karpin Faunak:
animaliak
babestu haien
istorioa kontatuz*

Nerea GOTI



Bruno BBK Karpin Faunan babesa aurkitu duen bi hartzetako bat da. Lau hilabete ingururekin heldu zen Karrantzara, animalien zentro batean ia espaziorik gabeko kaiola batean jaio ondoren. Ama beste zentro batera eraman zuten, baina Brunok beste hartz bat aurkitu zuen Karpinen, espezie bereko Ekhi izeneko emea. «Berak kume gisa hartu zuen Bruno. Horregatik izan zen posible biak espazio berean izatea, zeren hartzak animalia bakartiak dira. Orain ezinezkoa litzateke beste hartz bat sartzea, borrokan hasiko liratekeelako», kontatu du Markel Anton Karpin Faunako zuzendariak. Harekin bisitatu du GAUR8k 55 espezieren babesleku den espazioa, bertan bizi diren animalien barne-historietan sakonduz, horiek erakusten baitute zentroak zabaltzen duen mezua.

Atetzar batek gordetzen du parkea, antzina lursail pribatua izan zenaren itxiera bera da, eta landaredi ikusgarria kontserbatu du. Lehen geldialdia dinosauroen unibertso galduari eta ikerkuntzari dedikatutako errekreazioa da, “Dinosauroen harana”, txikien gozamenetako bat izaten dena. Hortik aurrera, aldatsaz gora egiten duen bidea oihana- ren soinuez betetzen hasten da: hegaztien karrankak, tximinoen oihuak, gurean ohikoak ez diren orroak...

Abandonatutako animaliak eta legez kontrako trafikoa- ren aurkako operazioetan konfiskatuak dira parkera hel- tzen diren gehienak, lekurik gabe geratu diren zoologikoe- tatik datozenak... Animalia horien ongizatea bermatzea da lehen urratsa. Horregatik, espazio batzuetan ezin dute ale gehiagorik jaso. Uretako dortokak dira, adibidez, jada har- tzen ez dituzten animaliak. Ohartarazpen bat dago, halere, kasu honetan: autoktonoak diren dortokak daude gure ba- soetan, baina abandonatutako dortokak direlakoan heltzen dira batzuetan zentrora. «Batzuetan bakarrik dauden ani- maliak abandonatuta daudela pentsatzen badugu ere, gerta daiteke amarengandik edo taldetik urrundu izana, baina ez egotea galduta. Gomendioa da bertan uztea, eta beharrez- koa bada udaltzainei deitzea, haiek jakingo baitute zer egin», azaldu du askotan asmo onez izaten diren esku har- tzeen inguruan.

Sarritan dauden espazioak handitu edo moldaketak egin behar izan dituzte animaliak gustuko dituen habitatak izan ditzan. Beste detaile bat aipatu du: kasuren batean lau aldi-



tan banatzen dute jaso beharreko janaria, adibidez, borro-
kak saihesteko. Temperatura, elikadura, ohiturak, jokabi-
deak... kontuan hartu behar diren beste faktore batzuk dira.
Hamaika langile aritzen dira zentroan, biologian eta ingu-
rumen zientzietan trebatuak gehienak. Zallako Eroskirekin
duten hitzarmen bati esker saldu ezin diren produktuak ja-
sotzen dituzte, eta horrek nabarmen handitu du animalien
elikaduraren barietatea, azpimarratu du Antonek.

Historia apur bat eginez, duela 29 urte zabaldu zituen
ateak 20 hektareatan sekulako instalazio eta berdeguneak
dituen zentroak, aldaketa nagusi batzuekin, batez ere ha-
sierako filosofiari dagokionez. Zoologiko gisa jaio zen zen-
troak laster aldatu zuen norabidea animalien babeserako
espazio bilakatuz. Gaur egun, Basa Fauna eta Flora Espezie
Mehatxatuen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Kon-
bentzioaren barruan –CITES nazioarteko hitzarmena, gaz-
telaniazko izendapenean– eskuratzen dituen animalien-
tzako harrera zentro ofiziala ere bada. Zaurituta
aurkitutako animalia basatiak sendatzeaz arduratzen di-
ren Gorlizko eta Martiodako zentroek ere bideratzen dituz-
te hara animaliak.

ANIMALIEK ERE BADUTE IRAGANEKO MOTXILA

Bide horretan, hainbat irizpide finkatu ditu zentroak, bes-
teak beste gatibutasunean bizitzera zigortutako animalia
gehiagoren jaiotzarik ez eragiteko. Horregatik, antzutu egi-
ten dituzte heltzen diren animaliak, «kondenatuta egongo
liratekeelako hemen bizitzera, eta hori ez da helburua. Ez
dugu haiekin espektakulurik egiten eta kontaktu zuzena
edo janaria ematea ez da posible», zehaztu du.

Familia giroko bisitak, udalekuetakoak eta ikastetxeek
antolatutako taldeak izaten dira nagusiki zentroko bisita-
riak. Urtean 40.000 bisitari inguru izaten ditu. Kontuan
hartzekoa da animalienaz gain hainbat espazio eskaintzen
dituela zentroak, egun pasa egiteko aukera paregabea ema-
nez. Ordutegiaren barruan, egonaldiak ez du ordu mugarik.

Istorio bat dago animalia bakoitzaren atzean, bisitaldian
zehar ezagutarazi eta kontzientzia pizteko erabiltzen dena.
Kume eder eta xamur bat besoetan hartuta etxera eramango
genuke, baina horrek sufrimendu handiko motxila iku-
sezin bat du. Sarritan etengabe umatzera behartutako
emeak dira atzean daudenak, kumeak izan eta gutxira

Bruno, Karpin Faunako
hartz arra, ondoko
orrialdean. Goian,
zentroan babesa aurkitu
duen pitoi sugeetako
bat, instalazioak,
pantera beltza eta
ondoan, pantera
lainotsua (Neofelis
nebulosa).

Monika DEL VALLE | FOKU

📍 jakin beharrekoak

Bisitaren iraupena
aldakorra da. Bi ordu
gomendatzen dute
gutxienez, ibilbide osoa
egiteko.

Astelehenetik ostiralera,
eskola oporretatik eta
jaiegunetatik kanpo
ezinbestekoa da
erreserba webgunearen
bidez egitea.

Ordutegiari dagokionez,
11.00etan sartu «eta
ixteko ordua iritsi arte
egon zaitezke gurekin».

Bisita gidatuak
gomendatzen dituzte,
egokiena baita animalien
istorioak ezagutu eta
transmititu nahi
dituzten balioak
plazartzeko. Bisita
gidatuen eskaintza berri
batekin ari dira lanean.

haiengandik apartatuak izaten direnak, horrek emearen-
tzat suposatzen duen sufrimenduari. Horrez gain, etxe-
ko bizimoduarekin bateraezinak diren baldintzak behar di-
tuzten animaliek kalean abandonatuta edo zentroan utzita
bukutzen dute sarritan. Adituak azaldu duenez, askotan ez
dute ezagutzen talde animalia den, zer ohiturak dituen...
Gertutik ikusi daiteke zentroan leku itxi edota txiki batean
bizi diren animaliak edota talde espezietaoak izan eta ba-
karrik hazi direnek zer-nolako osasun eta portaera arazoak
izaten dituzten. Surikatak aipatu ditu Antonek, horren adi-
bide gisa: «Surikata bat bakarrik izatea ez da batere apro-
posa, psikologikoki oso eragin txarra du haiengan», baina txi-
minoen artean bere burua kolpatzen zuen alea ere izan
dute, ziur asko Karrantzara heldu arte bizi zuten esperien-
tziaren ondorioz.

KALEAN AURKITUTAKO PITOIA

Narrastientzako espazioan, pitoi ikusgarriak daude. Hori-
tako bat ikuskizunean erabiltzen zuen dantzari batek.
«Hain handi egin zen, ezen ezinezko bihurtu baitzen. Deitu
zuen zoo batera, eta han egon ondoren Karrantzara heldu
zen, ziur asko lekurik gabe geratu zirelako», kontatu du
Markel Antonek. Espazio handiago bat egokitu behar izan
zuten suge horiak luzatzeko espazio nahikoa izan zezan.
Ondoan dagoen pitoia Bilbon aurkitu zuten, kalean; nor-
baitek aske utzi ondoren, espaloira erori zen. Suhiltzaileek
eraman zuten Karpinera. Binaka sartzen dira beharginak
bere espazioa txukuntzera, oso arriskutsuak baitira. Anek-
dota kontatu du Antonek, lankide batek erratza utzi zuen
eta minutu bakar batzuk behar izan zituen pitoiak tresna
txikitzeke. «Ez dira pozoitsuak, baina, ez dirudien arren,
oso azkarrak dira», azpimarratu du. Sugeen ondoan dagoen
baranoa seinalatu du. Mezularitza zerbitzu bateko kutxa
batean aurkitu zuten langileek.

Maren aurrean gelditu gara, egun batzuk baino ez dara-
matzate Karpinen, eta jada egokituta daudela azaldu du An-
tonek. Haiengandik gertu, hutsik dago hudoek hartzen zu-
ten espazioa. Azken boladan, ez da hudorik heldu, moda
kontua ere izaten da askotan animalien erosketa, baina ga-
rai batean oso modan egon ziren hudoak. Oso gertu, pante-
ra lainotsu eder bat dago, itsu dago. Haren istorioa gorde-
tzen du Karpin Faunak bertaratzen diren bisitarentzat.